

gan ez jakinez, elkarren arteko arazoak zurriz aritzen ziren, guduxka batzu* han hemenka piztuz. Gehiago horrelakorik gerta ez zedin, eta leinu mota guztiak elkarrekin nahas zitezten, Estatu bakar eta beraren zerbitzuko lan egitera deitzen zituen erregek. Delako hiru hilabete horietan, beraz, egiptiarrak milaka eta milaka joaten ziren piramideen egitera. Bistan da, ez beren baitarik,* baina bai —atzo eta orain orain harmadako* zerbitzura joaten den bezalatsu— bortxaz eta beldurra eraginik, denak ez baziren ere, gehienak bederen.*

Dena den, piramide bakoitzeko, urteko hiru hilabete horietan, hirurogei ta hamar mila langile enplegatzen omen ziren. Eta horrelako lan batek urte luzez irauten zuen.

Duela lauzpabost mila urte —beraz, egungo* Txinako Mao baino askoz lehenago— hasi ziren Faraon erregeak, Estatu azkar baten finkatzeko, teknik aldetik eta gizarteko harremanen aldetik iraulgarri zirèn obralan harri-garri batzuren* egiten, beren menean zituztèn leinu guztietako jendalde desberdinak langile bezala baliatuz.* (Gexan Lantziri)

USA

Orain dela 2.600 urte, euskaldunak Ameriketara

Euskaldunek Amerika alderako ukan duten joera adierazteko sustraia* izan daiteke hau. Geure aspaldiko arbasoen* bila joan ote dira euskaldunak Ameriketara, eta ez «txintxinaren» bila?

Azken urteotan teoria ugari ibili da, Kristobal Colombo baino oso lehenago hainbat herritako jende haraino joan zela esaten duena. Besteren artean, vikingoek eta irlandarrek jarri zituzketen beren oinak Ipar Amerikan, Kristo ondoko 600-1000. urteen artean. Galestarrak ere pixka bat geroxeago iritsi* ziratekeen haraino. Turkoek, japoniarrek, txinatarrek... guztiok utzi zuketzen beren arrastoren bat Ameriketara, Kristobal Colombo hara baino lehenago. Kartagotarrak, berriz, 480 bat urte Kristoren jaiotza baino lehenago heldu ziratekeen Ameriketara.

ARANZAZU

Automobilak alokatzeko etxea



Avda. Hurtado de Saracho, 10
(Begoñako gasolindegia ondoan)


Telefonoak: 33 21 10 - 33 33 47

BILBAO - 6

Baina, oraingoz bederen,* euskaldunok irabazi diegu guztioi lasterketa.

Duela zenbait urte, Filadelfiatik hurbil, 400 bat harri —letra antzeko marrazkiez horniturik— aurkitu zituzten USAko arkeologoek. Orain, berriz, Harvard Unibertsitate ospetsuko irakasle batek, Barry Fell filologoak, harri horiei buruz deklarazio interesgarri batzu* egin ditu.

Jakintsu honen ustez, harrietan agertzen den alfabetu iberikoaren letrak dira, hots,* Iberian edo Espainian, erromatarrek etorri baino lehenago erabiltzen zirenak. Orain arte —eta bere lanean aurrera joateko as-



Barry Fell fillogoa

moa omen du— zenbait harri irakurri ahal izan ditu eta hogeitatu hitz ulertu. Eta —txundi* zaitzete!— hitz horik,* orain bereon mintzatzen dugun euskararen antz handitako berbak direla dio.

Orain arteko teoria gehienak —vikingoena salbu— ez dituzte oso benetan hartu izan jakintsuek. Azken hau finkatuko ote? Oraingoz bederen, zenbait ikertzailek haintzakotzat* hartu du Barry Fellena. Dena dela, kontrateoriarik behintzat ez diote ezarri oraingoz.

K. Mitxelenak, Ipar Amerikara laster joatekoa denez, hau guztiau aztertzei aukera ukanen du agian.* Orduan jakin ahal izango dugu zehatzagorik eta argiagorik. (Patxi Kortabarria)

ITALIA

Oteitza eta Txilida Vatikanon

Orain dela hiru bat urte eratu zuten Vatikanoko Museoan **Erlizozko Arte Modernoaren** sail handi bat. Berrogei ta hamabost gela ditu; eta agertzen diren artistak, berrehun eta berrogei ta hamarren bat dira: Cantù, Dalí, Lara, Le Corbusier, Manzù, Messina, Picasso, Rodin oso ezagunak, beste artista ezagunen eta ez hain ezagunen artean.

Oteitza eta Txilidak ere beren lekua ukan dute Museoan hontan.

Oteitzak hiru artelan eskaini ditu: Arantzazuko «Apostoluetako» buru bat; «Apostoluetako» taldetxo bat; Arantzazun bertan jarria dadukan Ama Birjina samindua.